



OPARITU

ARABA EUSKARAZ

ESKAERAK ABENDUAREN 24A BAINO LEHENAGO JASOTZEKO SALMENTA ESKAINTZA

Iragarri bezala, Araba Euskaraz 2021 antolatuko du Ladio Ikastolak.

Kanpainako materiala Olentzero egunerako ateratzen aparteko esfortsua egiten ari gara egun hauetan. Dagoeneko, Araba Euskaraz gunea zabalik dugu Ladioko Zumalakarregi etorbideko 38. zenbakian eta bertan kanpainako materialak ikusi eta erosteko aukera zabalik dago.

OLENTZERO EGUNERAKO SALMENTA ESKAINTZA

Lehen txanpa honetan hainbat material kopuru txikietan eskuratu ditugu, eta Ikastolako familia eta langileei Olentzero egunerako eskuratu ditzazuela erraztu nahi dizuegu.

Izan ere abenduaren 15 eta 16an egin-dako eskaerak abenduaren 24rako banatzeko ahalegina egitera goaz. Horretarako honekin batera banatzen dugun excel orria Ikastolako posta elektronikora, laudio@ikastola.eus, bidali beharko duzue asteazkenerako.

katalogoa jeitsi




eskaera egin



AURKEZPEN EKITALDIA

Abenduaren 17an, ostegunean, 18:30ean Araba Euskaraz aurkezpen ekitaldia burutuko dugu Ladioko Lamuza parkeko kasinoan. Bizi dugun egoera dela eta, ez da aurrez aurreko saioa izango, hau da, internet bidez zabalduko dugu youtube-ko Araba Euskaraz kanalaren bidez.

Ikastolako ikasle, guraso eta langile guztiak gonbidatuta zaudete! Esandako



zabal bideak

ARABA EUSKARAZ 2021 LAUDIO
orduan Araba Euskaraz kanalean sartu eta streaming bidez egingo dugun transmisiora batu! Zabal bideak!

**youtube
kanala**



ARABA EUSKARAZ GUNEAREN IREKIERA

Larunbatean Araba Euskaraz Guneari azken ikutuak eman genizkion eta abenduaren 16tik aurrera orgutegi honetan izango dugu zabalik:

lanegunetan: 17:00-19:30
larunbatetan: 11:00-13:30/17:00-19:30